


NEIKER

MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

2021 txostena

Ikerkuntza eta
irtenbide berritzaileak
nekazaritzako elikagaien eta
basogintzaren sektoreetarako



Klik egin irakurketa
interaktibo bat hasteko



EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE


neiker.eus →



Nola nabigatu?

Klik egin irakurketa interaktibo bat hasteko

HIZKUNTZA AUKERATU



MENUAN ZEHAR NABIGATU



INFORMAZIO GEHIAGO IRAKURRI



BIDEOAK IKUSI



01
Sarrera

02
NEIKEReri buruz

03
Bikaintasun zientifikoa eta kudeaketakoa

04
Zerbitzu analitikoak eta erreferentziako instalazioak

05
Ikerketa eta transferentzia

06
Gure ingurunearekin

07
Sariak eta errekonozimenduak

01 Sarrera

02 NEIKEReri buruz

03 Bikaintasun zientifikoa eta kudeaketakoa

04 Zerbitzu analitikoak eta erreferentziako instalazioak

05 Ikerketa eta transferentzia

06 Gure ingurunearekin

07 Sariak eta errekonozimenduak

CAST

ENG

2021ean, NEIKER, nekazaritza eta abeltzaintzan eta basogintzan euskal sektore lehiakorrago bat garatzeko bidean laguntzen ari den zentro teknologikoa, buru-belarri murgildu da hurrengo urteak markatuko dituen eraldaketa digitalean sektoreari laguntzen.

Eusko Jaurlaritzak ondo daki eraldaketa digital horrek eragina izango duela ekoizteko, banatzeko eta kontsumitzeko moduan, eta badaki, baita ere, erronka handiak ez ezik aprobetxatzeko gai izan behar dugun aukera berriak ere ekarriko dituela. Gainera, nekazaritza jardueren eraldaketan aurrera egitera bideratutako proiektuei eta teknologiei esker, ekoizpen jasangarrigoa lortuko da, Europatik eta Euskaditik sustatzen diren nekazaritzako elikagaien politiken ildotik. Nekazaritza Ekologikoa Sustatzeko Planaz (NESP), Gastronomia eta Elikadura Plan Estrategikoaz (GEPL) eta Zuraren Plan Estrategikoaz (ZPE) ari naiz, batzuk bakarrik aipatzearren, baina baita Europako Itun Berdeak eta 'Baserritik Mahaira' estrategiak ezartzen dituzten lehentasunez ere.

Testuinguru horretan, NEIKER funtsezko eragilea da, sektorearetik hurbil dagoelako eta soluzioak eta ezagutzak transferitzen esperientzia luzea duelako. 2021ean, ikuspegi transbertsalarekin eta diziplina anitzeko talde zabal batekin lan egin du, sektorea orientatuz, goi-teknologia sartzea egingarria eta arina izan dadin eta benetako arazoak konpondu edo aukera berriak sor ditzan.

**“NEIKER funtsezko eragilea da,
sektorearetik hurbil dagoelako eta
soluzioak eta ezagutzak transferitzen
esperientzia luzea duelako”**



Lehendakaria

Bittor Oroz Izagirre

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza,
Arrantza eta Elikagaien
Politikako sailburuordea

“soluzio berritzaile eta oso teknifikatuak landu ditugu, sektoreak egin beharreko eraldaketa digitala egin dezan, errentagarritasuna eta erakargarritasuna hobetuz”

NEIKERen dihardugunontzat, garai zail baten ondoren nekazaritzako elikagaien eta basogintzaren sektorea suspertzeko urtea izan da 2021a, eta horretarako aurrean dugun erronka handia lehenetsi dugu: geratzeko datorren iraultza teknologikoa.

Horregatik, joan den urtean NEIKERen soluzio berritzaile eta oso teknifikatuak landu ditugu, adimen artifizialean, digitalizazioan, sentzorikan, Gauzen Interneten eta abarretan oinarrituz, sektoreak egin beharreko eraldaketa digitala egin dezan, errentagarritasuna eta erakargarritasuna hobetuz, bai belaunaldien arteko erreleboa ziurtatzeko bai ideia eta profesional berriekin ekintzailatza sustatzeko.

Sektorearekin lankidetzat estuan aritu garen proiektu garrantzitsuen artean aipatzekoak dira, besteak beste, adimen artifiziala erabiltzea ongariaren zein ureztapenaren erabilera minimizatzeko; ura sentzorikan oinarrituz kudeatzea; GPS bidez hesi birtualak martxan jartzea; bioteknologia erabiltzea landare barietateak hobetzeko eta bioekonomia zirkularra ezartzea balio erantsi handiko produktuak lortzeko.

Hori guztia 2050erako Garapen Jasangarriko Helburuen esparruan landu dugu. Izan ere, helburu horiek adierazten dute klima aldaketari aurre egiteko eta elikadura sistema osasungarriago eta jasangarriago baterantz aurrera egiteko jarraitu beharreko bidea, Eusko Jaurlaritzaren jardute ildoen babesarekin, datozen erronketarako –ez dira gutxi– euskal nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza sektore lehiakorra eta prestatua izan dezagun.



**NEIKEReko
zuzendari
nagusia**

Leire Barañano Orbe

01 Sarrera

02 NEIKEReri buruz

03 Bikaintasun zientifikoa eta kudeaketakoa

04 Zerbitzu analitikoak eta erreferentziako instalazioak

05 Ikerketa eta transferentzia

06 Gure ingurunearekin

07 Sariak eta errekonozimenduak

CAST

ENG

NEIKERen Administrazio Kontseilua

Lehendakaria

Bittor Oroz Izagirre

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordea.

Zuzendari nagusia

Leire Barañano Orbe

Idazkari ez kontseilaria

Sonia Masip Moriarty

Arlo Juridikoa

Kideak

Iñaki Aldekogaraí Labaka

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Zerbitzuetako zuzendaria

Raul Pérez Iracheta

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Elikagaien Industria eta Kalitateko zuzendaria

Jorge Garbisu Buesa

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria

Xabier Patxi Arrieta

Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien zuzendaria

Federico Saiz Alonso

BaskEgurreko lehendakaria

Unai Ibarzabal Goikoetxea

Harakai-Urkaikoko zuzendaria

Alaitz Ortuondo Pérez

Aberekin, SA

Jose Luis Fresno Santamaria

Garlan S. Coop.eko zuzendaria

Natalia Elguezabal Vega

NEIKEReko langileen ordezkaria



NEIKEReri buruz

Nor gara...

Zentro teknologiko bat gara, nekazaritzako elikagaien eta basogintzaren sektoreetarako soluzio berritzaileak sortzen espezializatua. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari atxikitako erakundea garenez, sektore horiei ezagutza eta balioa emateko egiten dugu lan.

Basque Research and Technology Alliance (BRTA) erakundeko kide gara. Eusko Jaurlaritzako partzuergo bat da, Euskadiko zenbait eragile teknologiko biltzen dituen, Euskadiren erronka industrialei erantzuteko, eta ikerketaren eta teknologiaren garapenaren arloko nazioarteko korporazio lider handiekin lehiatzeko.

Gainera, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen parte gara, zeinak arlo zientifiko eta teknologikoko elkarteak eta erakundeak batzen baititu. Egiten duen sare lanari esker, I+G+B arloko jarduera orekatua gauzatu dezakegu, Euskadiko nekazaritza ekoizpeneko sistemen lehiakortasuna eta produktibitatea hobetzeko.



...eta zer egiten dugu

Ustategien errentagarritasuna eta kudeaketa hobetzeko baliagarriak diren teknologiak garatzen ditugu, nekazaritza eta abeltzaintzaren industriak eta azken kontsumitzaileak eskatzen dituzten kalitate eta segurtasun baldintzak betetzeko.

Ezagutza zientifikoa sortzen dugu, baita irtenbide transferigarriak ere, gure gizarteari eta inguruneari aberastasuna eta ongizatea ekarriko dietenak.

Euskal nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza sektore lehiakorrago bat garatzen laguntzen dugu, gure nekazaritza eta natura ingurunearen kontserbazioaren eta jasangarritasunaren alde, eta Euskadin bioekonomia zirkularra bultzatuko duten politikak garatzearen alde.



01
Sarrera

02
NEIKEReri buruz

03
Bikaintasun zientifikoa
eta kudeaketakoa

04
Zerbitzu analitikoak
eta erreferentziako
instalazioak

05
Ikerketa eta
transferentzia

06
Gure ingurunearekin

07
Sariak eta
errekonozimenduak

CAST

ENG

Expertisea

Landare ikerketa

- Ekoizpen sistemak eta nekazaritzako praktika onak.
- Landare hobekuntza genetiko.
- Labore alternatiboak eta nekazaritzako elikagaietarako biomolekula interesgarriak.
- Epidemiologia eta landare laboreen infekzioen kontrola.
- Landare izurriteen eta gaixotasunen diagnostikoa eta detekzioa.
- Doitasunezko nekazaritza

Ingurumen ikerketa

- Nekazaritzako baliabideen eta baliabide naturalen kontserbazioa eta erabilera jasangarria.
- Lurzoru degradatuak leheneratzea.
- Ingurumen monitorizazioa.
- Klima aldaketaren inpaktua, klima aldaketa arintzea eta aldaketara egokitzea.
- Berotegi efektuko gasen emisioak nekazaritza eta abeltzaintza sistemetan.
- Bioekonomia zirkularra.

Animalia ikerketa

- Hobekuntza genetiko.
- Elikadura eta nutrizioa.
- Ekoizpen sistemak.
- Etologia aplikatua eta ongizatea.
- Animalien gaixotasunen diagnostikoa, kontrola eta zaintza epidemiologikoa.
- Zoonosia eta elikagaien segurtasuna.
- Ingurumen biosegurtasuna, basoko fauna eta bektoreak, ekoizpenerako animalientzako eta pertsonentzako infekzio iturri gisa.

Baso ikerketa

- Landare fisiologia eta ehunen hazkuntza.
- Genomika.
- Baso patologia.
- Jasangarritasuna eta ekosistemen zerbitzuak
- Hobekuntza genetiko.

Garapen jasangarrirako helburuetarako ekarpena



Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) 2015ean pobrezia desagerrarazteko, planeta babesteko eta guztiontzako oparotasuna bermatzeko plazaratutako neurri globalen multzo bat dira, garapen jasangarrirako agenda berri baten barruan. Helburu bakoitzak helmuga espezifikoak ditu, datorren 15 urtean lortu beharrekoak. Denok jarri behar dugu gure aldetik helmuga horietara iristeko.

NEIKERen ekarpena 3., 5., 12., 13. eta 15. GJHen helmugekin lerrokatuta dago: adin guztietan bizitza osasuntsua bermatzeko eta ongizatea sustatzeko egiten dugu lan (3), generoen arteko berdintasuna lortzeko eta emakume eta neska guztiak ahalduz, horixe baita mundu baketsu, oparo eta jasangarri bat eraikitzeke funtsezko oinarrietako bat (5), kontsumitzeko eta ekoizteko modalitate jasangarriak bultzatuz (12), larrialdi klimatikoari aurre egiteko premiazko neurriak hartuz (13) eta basoak modu jasangarrian kudeatuz, desertifikazioaren aurka borrokatuz, lurren degradazioa geldiaraziz eta degradazio horri buelta emanez, eta biodibertsitatearen galera geldiaraziz (15).

Sektoreari lagunduz

Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza sektore lehiakor eta jasangarriari laguntzen diogu, ikerketaren eta zientzia aplikatuaren bidez.

Hobekuntza genetikoa


Hobekuntza genetikoaren bidez, produktu lehiakorragoak lortzen ditugu, industriaren eta kontsumitzaileen premietara bideratuago daudenak, klima aldaketara hobeto egokitzen direnak eta ingurumenean inpaktu txikiagoa dutenak.

Nekazaritza eta abeltzaintzako eta basogintzako ustategien lehiakortasuna handitzea

Puntako teknologiak eta ekoizpen sistema berriak erabiltzen ditugu ustategien errentagarritasuna, lehiakortasuna eta jasangarritasuna handitzeko, haien jarraitutasuna ziurtatuz.

Ekoizpen prozesu jasangarriak eta ingurumena errespetatzen dutenak sustatzea

Nekazaritza jarduera defendatzen dugu, eta biodibertsitatea kontserbatzeko, klima aldaketa arintzeko eta paisaia mantentzeko egiten duen ekarpena zabaltzen dugu.





One Health

Animalien, gizakien eta ingurumenaren osasunaren arteko erlazioa aztertzen dugu, nekazaritzan fitosanitarioen aplikazioa arrazionalizatzea eta abeltzaintzan antibiotikoen erabilera murriztea ahalbidetuko duten alternatibak eskaintzeko.

Ekoizpen ekologikoa sustatzea

Nekazaritza mota hau sustatzen eta sendotzen lagunduko duen ezagutza objektiboa eta zientifikoa ikertzen eta sortzen dugu, sektorearen lehiakortasunarekin bateragarri eginez.

Larrialdi klimatikoari erantzutea

Etorkizuneko agertokiak aurreikusten ditugu eta klima aldaketa arintzeko eta klima aldaketara egokitzeko bide posibleak bilatzen ditugu, egungo ekoizpen sistemetarako alternatibak planteatuz. Abeltzaintza sektorearen berotegi efektuko gasen emisioen inbentarioak egiten ditugu.

Bioekonomia zirkularra

Ekoizpen prozesuek ez lukete hondakinik sortu behar. Hondakin horiek minimizatu eta produktu berrietarako materia bihurtuz gero, klima aldaketari aurre egin, lehengaiekiko menpekotasuna murriztu eta jarduera ekonomiko berriak sor daitezke.

NEIKER zenbakitan


Profesionalak

Konpromisoek, bikaintasun zientifikoak, emaitzetara orientatuta egoteak eta bezeroen gogobetetzeak definitzen gaituzte.



Ekonomia eta finantza adierazleak

Inbertsioak



Bikaintasun zientifikoa eta kudeaketakoa

Argitalpenak

Argitalpen zientifiko indexatuen kop.



Patenteak

Dagoeneko ebaluazio-fasean dago 2020an aurkeztu genuen Europako patentea (EP20382291.1). NEIKERek garatua Micobacteriasekin infektatutako behiak diagnostikatzeko, bere ekarpen nagusia da paratuberkulosiaren diagnostiko goiztiarra errazten duela eta aplikazioak dituela medikuntzaren eta albaitaritzaren arloan.

Barietate berriak erregistratzea

2021ean bi baratze barietate berri erregistratu ditugu: MADDIPER eta IZARTXO piperrak. NEIKERek lortutako barietateen zerrenda loditzen duten bi fruitu berri hauek Gernikako piper motakoak dira, eta fruitu heldu lehorrak piper txorizero gisa aprobetxatzen direlako hautatu dira.

MADDIPER eta IZARTXO, biak ere laster merkaturatuko direnak, itxura homogeneoa duten fruituak direlako nabarmentzen dira, baita heldu ondoren duten kolore onagatik (gorri karmina) eta errendimendu bikainagatik ere.

NEIKERen 2012an hasi ginen proiektu honetan lanean, Eusko Labeletik kontsumo eta ekoizpen mota honetara egokitutako piper barietateak hautatzeko eskaera jaso ondoren.



01
Sarrera

02
NEIKEReri buruz

03
Bikaintasun zientifikoa
eta kudeaketakoa

04
Zerbitzu analitikoak
eta erreferentziako
instalazioak

05
Ikerketa eta
transferentzia

06
Gure ingurunearekin

07
Sariak eta
errekonozimenduak

CAST

ENG

Erakunde hauetako kide



Aliantzak



Bezero nagusiak

 Aberekin	 ABRA	 Agromillora	 Azurmendi Jatetxea	 AEA Technology	 Alavesa de patatas	 Barrenetxe	 BASF
 BaskEgur	 BIOBIZZ	 Boehringer	 Bodegas Luis Cañas	 Bodegas Itsasmendi	 CERTIS	 Garlan	 GARAIA
 Harakai -Urkaiko	 GOIMAR	 Ihobe	 InsektLabel	 IRTA	 Kaiku Coop.	 Lursail	 Medcamm
 Pascual	 Syva	 Timac Agro	 Udapa	 Uaga (Unión Agroganadera de Álava)	 UPV/EHU	 USSE	

Kolaborazioak

IHOBEekin, nekazaritza sektorea klima aldaketara egokitzeko eta lurzorua kontserbatzeko.

BC3ekin, etorkizunean lan ildoak zehazteko, Euskadin klima aldaketarekiko erresilientea izango den lehen sektorea bermatzea ahalbidetuko duen ezagutza sortzeko.

UDAPAekin, BELTZA eta EDURNE patata barietateen merkatu probak, onarpen agronomikoa eta merkaturatzea egiteko.

MEDCANNekin, kalamu sendagarriaren barietateak ezaugarritzeko, Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziaren baimena lortu ondoren.

BIOBIZZekin, produktu berriak sortzeko eta hazkuntza teknika berriak garatzeko, hala nola hidroponiako ongarritze organikoa.

EITFOODekin, nekazaritza erregeneratiboa bultzatzeko eta zabaltzeko, lurzoruak babesteko eta klima aldaketa arintzeko egiten duen ekarpenagatik.

Ziurtagiriak



ISO 9001 ER-1201\2005

ziurtagiria, nekazaritza-elikadurako I+Gko eta transferentzia teknologikoko proiektuak kudeatzeko (nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-sektoreak eta natura-ingurunea).



ENACen 615/LE 1321

akreditazioa, Derioko zentroan nekazaritzako elikagaien entsegu mikrobiologikoak, immunologikoak eta molekularrak egiteko.




NEIKERek I+G+B kudeatzeko sistema bat du, UNE 166002:2014

Arauaren arabera, nekazaritzako elikagaien (nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzaren sektoreak) eta natura ingurunearen ikerketa, garapen eta berrikuntza jardueretarako. Zenbakia: IDI-0009/2019.

Zerbitzu analitikoak eta erreferentziako instalazioak

Zerbitzu analitikoak



Gure analisiak

Animalien osasuna

Hausnarkarien ugalketa gaixotasunak eta gaixotasun birikoak, mikobakteriosia, pentsuen eta horien lehengaien mikrobiologia, esneko patogenoen detekzioa, antibiorresistentziak.

17

Baliabide naturalen kontserbazioa

Lurzorua emankortasuna eta propietate hidrikoak, lurzorua parametro fisiologikoak eta biologikoak, agroekologiarako trantsizioari buruzko aholkularitza, klima aldaketa arintzeko aholkularitza...

Landare osasuna

Hazitarako eta kontsumorako patataren ziurtagiria; hazi botanikoaren purutasun eta bideragarritasun saiakuntzak berrogeialdiko organismoetan, gaixotasunen diagnostikoan, landare espezieen barietateen identifikazioan...

11 akreditazio

11 akreditazio ditugu arlo hauetan:

- Mikrobiologia-immunologia arloak
- Arlo molekularra
- Bioteknologia arloa

2021ean AENORen beste akreditazio bat lortu dugu, kasu honetan PCR bidez xylella fastidiosa delakoa detektatzeko. Patogeno honek mahatsondoa, olibondoa, fruta arbolak eta halako laboreak mehatxatzen ditu.



Laborategiko azpiegiturak

- 2. mailako biokontentzioko laborategia (BSL-2).
- 3. mailako biokontentzioko laborategia (BSL-3).
- Lurzoruak eta landare materiala aztertzeke laborategia.
- Landare analisisen laborategia.
- Animalia esperimentaziorako laborategiak, 2. eta 3. biokontentzio mailetakoa.
- Landare saiakuntzetarako berotegia, 2. biokontentzio mailakoa.
- Kromatografia arloa.
- Biologia molekularren arloak.
- Kimika analitikoaren arloa.

Balio kateko maila
guztietako
**300 BEZERO
BAINO GEHIAGO**

**ALERTA BIOLOGIKOKO
LABORATEGIEN
SAREKO KIDE
(RE-LAB)**

- 01 Sarrera
- 02 NEIKEReri buruz
- 03 Bikaintasun zientifikoa eta kudeaketakoa

04 Zerbitzu analitikoak eta erreferentziako instalazioak

- 05 Ikerketa eta transferentzia
- 06 Gure ingurunearekin
- 07 Sariak eta errekonozimenduak

CAST ENG

Erreferentziako instalazioak



Segurtasun handiko instalazioak	1.520 m ²	Laborategiak	3.305 m ²	Berotegiak eta tunelak	7.138 m ²	Abeltzaintzako instalazioak	2.765 m ²	Beste instalazio batzuk	1.810 m ²
BSL-3 mailako laborategia	673 m ²	Baliabide naturalen kontserbaziorako laborategiak (Derio, Bizkaia)	705 m ²	Berotegi estaliak, kristal plastikoa eta plaka (Derio)	3.500 m ²	Finka esperimentalak	100 ha	Biltegiak, hautaketa eta ezaugarritze aretoak eta zerbitzuak (Derio)	900 m ²
Segurtasun handiko berotegiak	845 m ²	Animalia Osasunaren Laborategiak (Derio, Bizkaia)	1.100 m ²	Saiakuntzetako kultibo azalera (Derio)	2.000 m ²			Nekazaritza biltegia (Arkauti)	500 m ²
		Landare Osasunaren Laborategiak (Arkauti, Araba)	1.500 m ²	Arkauti	1.638 m ²			Landa tailerra	340 m ²
								Hozkailuak	70 m ²

01

Sarrera

02

NEIKEReri buruz

03

Bikaintasun zientifikoa
eta kudeaketakoa

04

Zerbitzu analitikoak
eta erreferentziako
instalazioak

05

Ikerketa eta
transferentzia

06

Gure ingurunearekin

07

Sariak eta
errekonozimenduak

CAST

ENG

Ikerketa eta transferentzia

#agritech



**Proba pilotu aitzindari
batean ongarrien
kontsumoa murriztea
lortu genuen,
doitasunezko nekazaritza
erabiliz**



**Doitasunezko tresnak
garatu ditugu patata
urezatzeko uraren
erabilera optimizatzeko
eta ekoizpen galera
erdira murrizteko**



**Microsoft AI for
Earth-ek NEIKERek
garatutako eredu
prediktibo bat saritu du,
gariaren laborantzan
beharrezkoa den ongarri
nitrogenatuaren dosia
doitzen laguntzen duena**



01

Sarrera

02

NEIKEReri buruz

03

Bikaintasun zientifikoa
eta kudeaketakoa

04

Zerbitzu analitikoak
eta erreferentziako
instalazioak

05

Ikerketa eta
transferentzia

06

Gure ingurunearekin

07

Sariak eta
errekonozimenduak

CAST

ENG

#jasangarritasuna eta #lehiakortasuna



**Hobekuntza genetikoaren
bidez, ardi latxaren,
manexaren eta eusko
biarnotarrarren esnearen
ekoizpena kontserbatzea eta
babestea lortu dugu**

**Erakutsi dugu bigantxak
paratuberkulosiaren aurka
txertatzeak %35 murrizten
duela haien heriotza
tasa bizitzako lehen hiru
hilabeteetan**

**Intxaurrondoak landatzeko
proiektuak finkatzen lagundu
dugu, sektoreak laboreak
dibertsifikatzeko aukera
gehiago izan dezan**

**Nutrizio beharrak eta
barne parasitoen kontrola
dira ardi sektorearen kezka
nagusiak elikadurari eta
osasunari dagokienez eta
arazo hauentzat soluzio
ezberdinak frogatu ditugu**

**Animalien dieta aldatuz,
haragia, esnea eta
haragiaren eratorri eta
esneki osasungarriagoak
lortu ditugu**

01

Sarrera

02

NEIKEReri buruz

03

Bikaintasun zientifikoa
eta kudeaketakoa

04

Zerbitzu analitikoak
eta erreferentziako
instalazioak

05

Ikerketa eta
transferentzia

06

Gure ingurunearekin

07

Sariak eta
errekonozimenduak

CAST

ENG

#klima larrialdia



**Klima aldaketaren
ondoriozko arriskuak
prebenitzeko Climalert
proiektuak –guk ere parte
hartzen dugu– minimizatu
egin du Frantzia uholde
baten eragina**



**Landare estalkien
erabilerarekin %60 baino
gehiago murriztu dugu
higadura Arabako Errioxan
maldan dauden mahastietan**



**Mahatsondoaren
biodibertsitatea, ongarritzea
eta landare estalkien
erabilera aztertu ditugu,
klima aldaketaren aurrean
ardoen kalitateari eusteko**



**Abeltzaintzak klima
aldaketan duen eragina
arintzeko estrategia berriak
baliozkotu ditugu**



**Hautespen genetikoak
eta elikadurak esnetarako
behien metano isurpenak
%20 murrizten lagundu
dezaketela frogatu dugu**

22

**Gizakien eta animalien osasunean
eragina izan dezaketen
patogenoak transmititzen
dituzten bektore berrien
heldueraren eta ezarpenaren
jarraipena egin dugu iaz ere**



01

Sarrera

02

NEIKEReri buruz

03

Bikaintasun zientifikoa
eta kudeaketakoa

04

Zerbitzu analitikoak
eta erreferentziako
instalazioak

05

Ikerketa eta
transferentzia

06

Gure ingurunearekin

07

Sariak eta
errekonozimenduak

CAST

ENG

#ekoizpen ekologikoa



**Arkautiko gure lursailetan
zazpi hektareako ekoizpen
ekologikoaren ziurtagiria
lortu dugu**



**Labore ekologikoetan egin
diren azken aurrerapenak
erakutsi ditugu, gure
saiakuntzetara urtero
egin ohi den bisitan**



**Eusko Labeldun behi
haragi ekologikoaren
merkaturatzea
bultzatu dugu**



#bioekonomia



**EKONOMIA
ZIRKULARRAREN ETA
BIOEKONOMIAREN Plan
Estrategikoa egin dugu,
IHOBerekin lankidetzan**



**Ardi latxak pasarelarako
jauzia egin du Maria
Cle-ren, NEIKERen eta
Latxaesnearen eskutik**



**Kafe hondarrak
ganaduarentzako
elikagai bihurtu ditugu**



**Ongarri eta bioestimulatzaile
berriak garatzen dihardugu,
hondakin organikoen
aprobetxamendu
jasangarriaren bidez**



**Europako proiektu bat
koordinatu dugu,
arrantza industriako hainbat
tona hondakin
bioongarri bihurtzeko**



**Ekonomia zirkularra erabili
dugu, mahatsen hondakinak
pentsuen osagai bihurtzeko**

01

Sarrera

02

NEIKEReri buruz

03

Bikaintasun zientifikoa
eta kudeaketakoa

04

Zerbitzu analitikoak
eta erreferentziako
instalazioak

05

Ikerketa eta
transferentzia

06

Gure ingurunearekin

07

Sariak eta
errekonozimenduak


CAST

ENG

#onehealth



**Basa-faunan eta bektoreetan egiten
dugun zaintza epidemiologikoak aurrera
dihardu, hel daitezkeen gaixotasun
berriak detektatzeko (horietako batzuk
zoonotikoak)**



**Esnetarako behi aziendetan
antibiotikoak zuhurtziaz erabiltzeko
bi gida argitaratu ditugu**

01

Sarrera

02

NEIKEReri buruz

03

Bikaintasun zientifikoa
eta kudeaketakoa

04

Zerbitzu analitikoak
eta erreferentziako
instalazioak

05

Ikerketa eta
transferentzia

06

Gure ingurunearekin

07

Sariak eta
errekonozimenduak

CAST

ENG

#animalien ongizatea

Animalien ongizatea ebaluatzeko
munduko 1. APPa abiarazi dugu.

Animalien ongizatea
ikertzeko CIBA Sare
zientifikoaren
sorrera sustatu dugu

IRTak eta NEIKERek
garatu duten
animalien ongizateko
Welfair™ zigiluak
errekonozimendua jaso du
dakarren berrikuntzagatik

Euskal Okelaren Welfair™
ziurtapen estrategia
diseinatu dugu

#baso-hobekuntza

Gure jarduerak EUSKOBASOA 2050 Euskadiko Basogintza Hobetzeko Planaren barruan kokatzen dira. Plan horrek enborreko lau lan-ildo eta zeharkako 2 ditu. Enborrekoak osasuna, espezie alternatiboak, zuraren kalitatea eta hobekuntza genetikoko planaren erreaktibazioa dira, eta zeharkakoak jasangarritasuna eta klima-aldaketa.

Lurraren, uraren eta basoetako landaretzaren arteko elkarrekintza aztertu dugu, giza kontsumorako ura hartzen duten arro isurialdeetan baso-kudeaketa jasangarrirako jarraibideak proposatzeko, horren arabera baita edaten dugun uraren kalitatea eta kantitatea.

Iaz, gure zuhaitzak arriskuan jartzen dituzten patogenoak aztertzen jarraitu dugu. 2019-2021 aldirako Plan Pilotu Esperimentalaren barruan, pinuaren banda marroi eta gorriari aurre egiteko alternatibak ikertzen jarraitu dugu.

Berotze globalak eragindako baldintza berriekiko toleranteak diren zuhaitzak identifikatu eta enbriogenesi somatikoaren izeneko teknikaren bidez biderkatzen ditugu, aurreikusitako egoera berrietara egokituko diren eliteko aleak edukitzeko (bero gehiago, ur gutxiago, etab.).

Landatzen ditugun basoen eta zuhaitzen kudeaketa hobetzeko moduari buruz ikertzen ari gara, baso-balio-kateak hornidura egonkor, iraunkor eta kalitatezkoa ahalbidetuko dioten alternatibak izan ditzan.

- 01
Sarrera
- 02
NEIKEReri buruz
- 03
Bikaintasun zientifikoa eta kudeaketakoa
- 04
Zerbitzu analitikoak eta erreferentziako instalazioak
- 05
Ikerketa eta transferentzia
- 06
Gure ingurunearekin
- 07
Sariak eta errekonozimenduak

CAST

ENG

#webinarrak eta transferentzia jardunaldiak

Sektoreari gure ezagutzak, ikerketak eta soluzioak zabaltzen dizkiogu



01

Sarrera

02

NEIKEReri buruz

03

Bikaintasun zientifikoa
eta kudeaketakoa

04

Zerbitzu analitikoak
eta erreferentziako
instalazioak

05

Ikerketa eta
transferentzia

06

Gure ingurunearekin

07

Sariak eta
errekonozimenduak

CAST

ENG

Food 4 Future

2021eko Food 4 Future-en, foodtech industriarako nazioarteko erreferentziazko azokan, sektoreko erreferentziazko enprekin batera garatu ditugun elikagai eta edariak aurkeztu genituen.



Gure ingurunearekin

NEIKER saria

NEIKER sariaren bidez, zientzia euskaraz zabaltzea sustatzen dugu, CAF-Elhuyar sarien barruan. 2021ean bosgarren ediziora iritsi gara, eta Betizu behi arrazari buruzko artikulu bat izan da irabazlea.

Zientzia Azoka

Beste urte batez Elhuyar Fundazioak antolatzen duen Zientzia Azoka ekimenean partu hartu dugu, gazteek diseinatutako proiektuen bidez kultura zientifikoa sustatzeko. Proposamen irabazleak aukeratzen dituen epaimahaiko kide gara, eta parte hartzen duten ikastetxeak bi eguneko egonaldietan hartzen ditugu.



30

kutxa kultur



Saluganda GKE

Saluganda GKEari laguntzen jarraitzen dugu. GKEa 2010ean sortu zen, Ugandako landa eremuetako emakumeen eta haurren bizi maila hobetzeko. Hauek dira Salugandaren jardute ardatzak: hezkuntza, ura eta saneamenduak, nekazaritza eta abeltzaintza, eta osasuna eta nutrizioa.

30.000 kilo patata banatu ditugu

2015etik Elikagaien Bankuarekin lankidetzan ari gara, erakundeari gure ikerketa jardueretan sortutako soberakinak emanez. 2021ean 30.000 kilo patata banatu ditugu 1.200 familia baino gehiagori laguntzeko.



JUNE HIDALGO

Doktoregaia · Baliabide Naturalen Kontserbaziorako Departamentua

N

31

Emakumeak eta Neskak Zientzian

Berdintasunaren aldeko apustua egiten duen erakundea garen aldetik, joan den urtean hainbat ekimen babestu eta horietan parte hartu dugu, gure jarrera agerian uzteko. Horien artean, STEAM Sare edo Emakumeak eta Neskak Zientzian izeneko Nazioarteko Eguna (otsailaren 11), STEM aloetan (Science, Technology, Engineering and Mathematics) diharduten emakumeen lana ikastetxeetan hitzaldi bidez ikusarazteko.

01
Sarrera

02
NEIKEReri buruz

03
Bikaintasun zientifikoa
eta kudeaketakoa

04
Zerbitzu analitikoak
eta erreferentziako
instalazioak

05
Ikerketa eta
transferentzia

06
Gure ingurunearekin

07
**Sariak eta
errekonozimenduak**

CAST

ENG

Sariak eta errekonozimenduak



Stanfordeko Unibertsitateak NEIKEReko hiru ikertzaile sartu ditu munduko zientzialari ospetsuenen artean



Lurzoruen ikerketako zentro ospetsuenen artean gaude mundu mailan



Gure mikobakterio taldeak animalien osasunaren Zendal saria jaso du animalien gaixotasunen diagnostikoa eta kontrola hobetzeko egindako lan berritzaileagatik

32



HR EXCELLENCE IN RESEARCH



Europako Batzordeak aintzat hartu du NEIKERek giza baliabideetan duen estrategia

NEIKER

MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE



ARKAUTIKO ZENTROA

Arkautiko Nekazaritzako Elikagaien
Campusa, 01080
Vitoria-Gasteiz (Araba)
(+34) 945 121 313

DERIOKO ZENTROA

Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea
812 partzela. Berreaga 1. 48160
Derio (Bizkaia)
(+34) 944 034 300

neiker.eus →